

Txangoa arriskuen
gaztelura

Haurren segurtasuna
Haur hezkuntza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO




Argitaraldia: 1.a 2007ko irailan
Ale-kopurua: 1.000 ale
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Industria, Merkataritza eta Turismo Salla
Internet: www.euskadi.net
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Egilea: Ortazar, S.L.
Aurreinprimaketa: Argia Servicios Gráficos, S. L.
Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S. A.
ISBN: 978-84-457-2607-5
Lege-gordailua: VI-392/07

AURKIBIDEA

Or.

Irakasleentzako informazioa	3
• Jakin beharreko datuak	3
• Helburuak	5
• Edukiak	5
• Proposamen didaktikoak	5
Aurretiko jarduerarako proposamenak	6
Jarduera osagarriak	7
Geroagoko jarduerak (Fitxa didaktikoak).....	9



JAKIN BEHARREKO DATUAK

Urtebetetik 14 urtera arteko haurrak istripuetan hiltzen dira gehienbat; izan ere, haurren ezbeharrek aurrea hartu diete infekzioek eragindako gaixotasunei eta beste gaixotasun batzuei. Urtero mila haur inguru hiltzen da istripuen ondorioz. (Kontsumoko Institutu Nazionala, 1999).

Aurrerapen teknologikoen, moda berriek eta gure bizimodua errazagoa eta erosoagoa egiten duten gauzek arrisku berriak ere badakartzate. Honako faktore hauei buruz ari gara: mugikortasun handiagoa eta garraioaren erabilera, etxeko mekanizazioa eta etxetresna elektrikoak, elektrizitatea, etxeko gauza toxikoak (botikak, garbitasunerako gauzak eta abar)

Honen guztiaren eraginez, istripuak gertatzeko arriskuek eta segurtasun-arazoek kezka berezia eragiten digute herrialde garatuetako biztanleoi.

Etxeko istripuak ez dira halabeharrez gertatzen, beti dago istripua gertatzeko arriskua. Hala ere, segurtasun-neurri xume batzuk hartzen baditugu, ekidin egingo ditugu istripu gehienak.

0 eta 5 urte bitartean gertatzen diren istripuetatik % 85 etxean gertatzen dira. Haurrak hazten doazen heinean, istripuak beste toki batzuetan gertatzen dira sarriago: kalean, plazetan eta eskolan esaterako.

Etxean honako istripu hauek gertatzen dira gehienbat (garrantziaren arabera izendatuko ditugu):

1. Erorketak.
2. Kolpeak.
3. Ebakiak eta zauriak.
4. Intoxikazioak.
5. Erredurak (likidoek –urak eta esneak- eraginda, gauza beroek –plantzak eta berogailuak- eraginda eta argindarrak eraginda).
6. Itotzea.

Gorputzeko zatirik kaltetuenak burua eta gorputz-adarrak izaten dira.

Istripu gehienak arinak izaten dira, eta ez dute ondorioz izaten. Hala ere, 10 kasutatik 7tan nolabaiteko laguntasuna edo behin-behineko sorospena behar izaten da.

Sexuari dagokionez, mutikoei neskatoei baino istripu gehiago gertatzen zaizkie (% 60-65).

Etxe barruan edozein tokitan gerta daitezke. Dena den, sukaldean eta komunean gertatzen dira sarrien. Ondoren, egongela eta eskailerak dira tokirik arriskutsuenak.

Etxean badira arriskutsuak izan daitezkeen zenbait **gauza eta tresna**, hauek esaterako:

- Pospoloak eta txiskeroak.
- Ganibetak, artaziak eta mozteko erabiltzen diren beste tresna batzuk.
- Produktu toxikoak (garbitasunerako erabiltzen direnak, zomorroak hiltzeko erabiltzen direnak eta abar)
- Botika-kutxa eta botikak.
- Kristalezko edalontziak eta botilak.
- Bitxiak.
- Botoiaren neurriko pilak dituzten tresnak.
- Eskailera finkoak eta eskailera mugikorak.
- Plastikozko poltsak (itotzeko arriskua).
- Pinturak eta disolbatzaileak.

ISTRIPU OHIKOENAK ETA EKIDITEKO NEURRIAK

Tokiak seguruagoak izan daitezzen hainbat gauza egin eta hainbat estrategia erabil daiteke; era berean, arriskuez, ondorioez eta minik ez hartzeko moduez ohartaraz ditzakegu haurrak

ERORKETAK

ARRAZOIAK	NOLA EKIDIN
<ul style="list-style-type: none">• Traban jarritako gauzak.• Zoru irristakorra (oso leunduta dagoelako edo argizari gehiegi duelako, edo likido ren bat isuri delako —ura, koipea, olio...—)• Igotzeko edo goiko gauzak hartzeko behar ditugun tresnak txarto erabiltzea.• Eskailerak txarto egotea edo orekarik ez izatea.	<ul style="list-style-type: none">• Lurrean eta pasaguneetan ez utzi gauzarik traban. Jostailuak batzea garrantzitsua dela irakatsi.• Zorua ez jarri irristakor, eta isuritako likidoak lehenbailehen arinen garbitu.• Bainuontzian, ez irristatzeko alfonbrak erabili.• Haurrei esku-eskailerak erabiltzea debekatu.• Eskailerek ondo zaindu.

KOLPEAK

ARRAZOIAK	NOLA EKIDIN
<ul style="list-style-type: none">Behar ez diren tresnak eta gauzak erabiltzea, akatsak dituztenak erabiltzea edo akats bakoak gaizki erabiltzea.Ate edo leiho batek ixteko eta irekitzeko egiten duen ibilbidean egotea.Ibiltzeko edo lan egiteko tokian gauzak jartztea.	<ul style="list-style-type: none">Armairuak eta tiraderak itxi.Ahal den neurrian ertz biribileko altzariak aukeratu.Pasaguneak ondo argiztatu.Haurrek ez dezatela tresnekin jolasik egin. Horretarako, tresnak kutxa egokietan gorde, haurrek ez hartzeko moduko tokian.

EBAKIAK ETA ZAURIAK

ARRAZOIAK	NOLA EKIDIN
<ul style="list-style-type: none">Eskuekin edo hankekin gauza zorrotzak edo ziztatzaileak ukitzea.Gauza zorrotzak edo ziztatzaileak uztea haurrek hartzeko tokian.Landare ziztatzaileak uztea umeez ukitzeko tokian.	<ul style="list-style-type: none">Platera edo edalontziren bat puskatuta edo piztatuta dugun begiratu.Landare ziztakorrak ongi ikusteko tokian jarri, beti ere umeez ez ukitzeko lekuan.Ertz zorrotzak dituzten gauzak (ganibetak, jostorrtzak, guraizeak ...) umeen ingurutik kendu.

INTOXIKAZIOAK

ARRAZOIAK	NOLA EKIDIN
<ul style="list-style-type: none">Honako gauzaren bat irenstea: botikak, garbikariak, intsektizidak, pinturak, disolbatzaileak, lurrinak edo alkoholdun edariak.	<ul style="list-style-type: none">Aipatutako gauzak toki seguruan gorde, haurrek ez hartzeko tokian.Botikarik ez alferrik gorde. Gau-mahaian edo haurrek erraz hartzeko tokian ez utzi.Gauzak jatorrizko ontzietan gorde, ez jakien ontzietan.Gauza desberdinak ez gorde batera (janariak, toxikoak eta abar)

ERREDURAK ETA ELEKTROKUZIOAK

ARRAZOIAK	NOLA EKIDIN
<ul style="list-style-type: none">Gauza beroak (berogailuak, lanparak...) umeez hartzeko tokian uztea.Sukaldeko tresneria kirtenik gabe edo babes-neurri egokirik gabe erabiltzea.Haurrek suziriak, txiskeroak, petardoak, kandelak... erabiltzea.Zipritinak botatzen dituzten janariak estalkirik erabili gabe egosi edo frijitzea.Atzamarrak edo zenbait gauza (guraizeak, sardexkak...) entxufeen zuloetan sartztea.	<ul style="list-style-type: none">Gauza beroak edo garra duten gauzak haurrek ez hartzeko tokian utzi.Haurrak sukaldetik eta lisaketa egiten den toki tik urrundu.Zartaginen eta lapikoen kirtenak ez dira sekula jarri behar sukaldeko altzaria baino kanporago.Zipritinak botatzen dituzten janariak estali.Beroa ematen duten eta derrigorrez eskura egon behar duten gauzak babestu.Haurrek ez dezatela ez pospolorik, ez txiskero rik, ez petardorik, ez suziririk, ez antzeko ezer erabili, ez dira-eta jostailuak.

ASFIXIA ETA ITOMENA

ARRAZOIAK	NOLA EKIDIN
<ul style="list-style-type: none">Plastikozko poltsak erabiltzea txano gisa edo jolaserako moztarro gisa.Ahotik edo sudurretik arnasbideak baino gauza zabalagoak sartztea.	<ul style="list-style-type: none">Haurrek ez dezatela jolasik egin gauza txiki-ekin, ez eta desmontagarriekin eta euren adinerako gomendagarriak ez diren gauzeekin.Plastikozko poltsekin ez dezatela jolasik egin.Bainuontzian daudenean edo ura dagoen tokiren batean dabilzanean (gigerilekueetan, erreketan...) beti zainduta egon daitezela.

Gurasoei informazio honen berri ematea interesgarria izango litzateke.

ARRISKUAZ OHARTZEKO SINBOLOAK

Garrantzitsua da txiki-txikitatik ezagutzea arriskuaz ohartzeko ikur eta sinbolo guztiak, eguneroko bizitzan hainbat etiketatan aurkituko ditugun ikurrak alegia. Horri esker, adin horretan sarri gertatzen diren ezbehar asko ekidingo ditugu, intoxikazioak eta pozoidurak esate baterako.

**SUKOIA**

Substantzia hauek erraz hartzen dute su, eta, ondoren, sutan edo gori egon daitezke.

Azala ukituz gero, erre egingo lukete.

BABES-NEURRIA: Garren, txinparten edo beroaren ingurutik urrundu.

**KALTEGARRIA**

Substantzia hauek arnastuz edo irentsiz gero edo azaletik sartuz gero, kalte larria edo kronikoa eragin dezakete osasunean.

BABES-NEURRIA: Begirik eta azalik ez ukitu.

Ez irentsi eta ez arnastu.

**POZOITSUA**

Substantzia hauek arnastuz edo irentsiz gero edo azaletik sartuz gero, nahiz eta neurri txikian izan, heriotza edo ondorio larriak eta kronikoa eragin ditzakete osasunean.

BABES-NEURRIA: Ez ukitu inondik inora. Ez arnastu.

**ERREGARRIA**

Substantzia hauek ehun bizia ukituko balute, kaltea egingo liokete eta beharbada hondatu egin lukete.

BABES-NEURRIA: Jantzera egokirik ez baduzu, ez ukitu.

Ez irentsi eta ez arnastu.

HELBURUAK

Helburu orokorra:

- Segurtasunaren eta osasunaren balioaz konturatu, eta horrek isla izan dezala eguneroko bizitzako jokabideetan.

Helburu zehatzak:

- Gauza, produktu eta egoera arriskutsuak bereizten ikasi.
- Arrisku-ikurrak eta arriskua ekiditeko jokabideak ezagutu.
- Salgai dauden badaezpadako gauzak baztertzeko ohitura hartu.
- Seguruak ez diren jokabideak baztertzeko ohitura hartu.

EDUKIAK

1. Balizko arrisku-egoerak haurraren inguruan (familian, eskolan eta gizartean): gelako arriskuak, etxeakoak, kalekoak...
2. Gauza eta produktu arriskutsuak. Produktu pozoitsuak, argindarrrak eta tresna elektrikoek eragin ditzaketen arriskuak, suak eragin ditzakeenak, eskolako materialak, botikak ...
3. Ohartzeko erabiltzen diren ikurrak ezagutu: kalekoak (bideko segurtasun-arauak), gauzen etiketetakoak, toki publikoetakoak, etxeakoak...
4. Babes-neurriak (istripuak, intoxikazioak... ekiditeko) eta jokabide seguruak. Ebakuazio-simulazioak.

PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK

IKASTEKO ETA IRAKASTEKO JARDUERAK	
Aurretiko jarduerak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Arriskuen zerrenda beltza. 2. Erabilpen egokia. 3. Nire izena da... 4. Zalapartarik gabe. 5. Jolastoki segurua.
Geroagoko jarduerak (fitxa didaktikoak)	<ol style="list-style-type: none"> 1. fitxa. Sukaldean kontuz. 2. fitxa. Ekintza segurua - ekintza ez segurua. 3. fitxa. Ikurrei arretaz begiratu! 4. fitxa. Bokal seguruak. 5. fitxa. Su-itxalgailua. 6. fitxa. Detektibeak jolastokian. 7. fitxa. Eskolako botika-kutxa. 8. fitxa. Goazen kalera. 9. fitxa. Gauza arriskutsuak. 10. fitxa. Eguzkitik babestu. 11. fitxa. Ikurrak eta koloreak. 12. fitxa. Kontxik arriskurik gabe patinatzen du.
Jarduera osagarriak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ebakuazio-simulazioa. 2. Esperimentua: flotatzeko erarik egokiena. 3. Grabazioa jolastokian. 4. Igarkizunak.

1. “Arriskuen zerrenda beltza”.

Haur bakoitzari marrazki bat egiteko esan. Marrazki horretan beretzat arriskutsua izan daitekeen gauza, tresna edo produktu bat ager dadila. Hortik aurrera, gaiarekin zerikusia duten galderak egin: zergatik uste duzu arriskutsua izan daitekeela? Non aurki dezakezu? Zer gerta dakizuke? Zure etxeko norbaiti gertatu zaio antzekorik?

2. “Erabilpen egokia”.

Tresna eta gauza hauek egoki erabiltzen irakatsi:

- Eskolako gauzak: guraizeei, puntzoiei eta eskolako beste tresna batzuei nola heldu behar zaien eta nola erabili behar diren erakutsi; lekeda, arkatzak eta beste gauza batzuk nola erabili behar diren azaldu (ez miazkatu, borragomarik ez ahora sartu...)
- Tresnak eta janariak jangelan: sardexka, ganibeta (nola erabili eta besteei nola eskaini), kristalezko edalontziak eta pitxerrak, jaterakoan zerekin izan behar dugu kontu (arrain-hezurak...).

Aipatu ditugun tresnak eta gauzak gaizki erabiliz gero, izan ditzakegun ondorioak aztertu (ebaki, erre, intoxikatu, ito...)

3. “Nire izena da...”

Haur guztiek ikasi behar dute beraien izena esaten eta behar bezala identifikatzen. Hori jakitea oso garrantzitsua da, batez ere larrialdietan edo haurra noizbait galtzen bada. Informazio hau ikasi beharko luke: izena, abizenak, telefono-zenbakia, herriaren izena eta gurasoen izena. Orri zuri bat eman, idazten ikas dezaten.

4. “Zalapartarik gabe”

Aulkien jolasean arituko dira, baina parte-hartzaileak kanporatu gabe. Musika isiltzen den bakoitzean aulki bat kendu, baina ez jokalaririk kanporatu. Ondorioz, gero eta aulki gutxiago egongo da parte-hartzaileentzako. Jolas honen bidez, ebakuazio-simulazioetan gerta daitezkeen jende-pilaketak adieraziko ditugu. Horregatik da hain garrantzitsua "bururik ez galtzea", mesederako barik, kalterako delako.

5. “Jolastoki segurua”

Jolastokian seguru jolasten ikasiko dugu. Esate baterako, txirristan egoki ibiltzen (banan-banan eta eserita), txintxaunean (aurrean ez jarri, beste norbait dabilenean)... Bultzadak, zango trabak eta antzekoak arriskutsuak direla gogorarazi.

EBAKUAZIO-SIMULAZIOA



KONTUAN HARTZEKO NEURRIAK:

- * Eskolako larrialdi-deia zein den ikasi.
- * Ateak eta leihoak itxi.
- * Gelatik eta eraikinetik egoki irteteko erak (presarik eta urduritasunik ez).
- * Ordenan jarrita eta isilik irten.
- * Ez hasi norberaren gauzak hartzen.
- * Ziurtatu gela barruan ez dela inor gelditu.
- * Azkar ibili, baina korrika egin gabe, estropezuka eta bultzaka ibili gabe.
- * Irakasleak esaten duena egin.
- * Gelako ezinduei lagundu.
- * Aurrez erabakitako tokietan elkartu. Hormaren ondotik joan, bultzaka egin gabe.
- * Taldea beti elkartuta egongo da; ez da zatituko eta ez die beste talde batzuei aurrea hartuko, nahiz eta aurrez adostutako tokietatik kanpo egon. Hartara, errazagoa izango da jakitea ikasleak nondik nora dabilzan.

KONTUAN HARTZEKO BESTE GAUZA BATZUK:

- Ebakuazioan asko jota erabiliko den denbora: eraikin osoa husteko hamar minutu eta solairu bakoitza husteko hiru minutu.
- Lehenbizi beheko solairukoak aterako dira eraikinetik. Goiko solairuetakoak gertuen dituzten eskaileretara hurbilduko dira ondo antolatuta, baina ez dira beheko solairuetara jaitsiko harik eta behekoak irten arte. Solairu bakoitzaren hustuketa taldeka egingo da. Eskaileretatik gertuen daudenak aterako dira lehenengo, ordenan eta taldeak nahastu barik.

GRABAZIOA PATIOAN



Jolastokian jolasean ari diren edozein egunetan bideo irudiak hartu. Ondoren, grabazioa gelan ikusiko genuke eta jokabide desegokiak aztertuko genituzke, seguruak ez diren jokabideak alegia, eskolako lagunei arriskua ekar diezaiaketenak. Beste aukera seguruago batzuk proposatuko ditugu. Hurrengoan jolastokira doazenean, egindako proposamenak praktikan jarriko dituzte.

ESPERIMENTUA: FLOTAZIO ONENA



BEHAR DUDANA: arrautza 1, edalontzi 1, gatza eta koilaratxo 1.

Edalontziaren heren bat urez bete. Hiru koilarakadaxo gatz bota eta uretan nahastu. Gatz gehiago bota, harik eta nahastu ezinik geratu arte (gatz edalontziaren hondan geratuko da). Une horretan arrautza sartu edalontzian, kontu handiz. Flotatu egiten duela ikusiko duzu. Edalontzia pixka bat okertuz, arrautzaren gainera apurka-apurka ura isuri, edalontzia bete arte.

Zer gertatu da?

Arrautza edalontziaren erdian geratzen da, ur gezaren eta gaziaren artean. Ur gaziak arrautzak baino dentsitate handiagoa duenez, gorantz bultzatzen du, ur geza dagoen alderantz. Arrautzari gertatzen zaion gauza bera gertatzen zaie igerilariari ere, itsasoan igerilekuan baino errazago egoten dira ur gainean, ur gaziak ur gezak baino indar handiagoa egiten duelako gorantz.

ASMAKIZUNAK



- Hiru argi ditut eta hanka bakarra. Niretzat nahikoa. Nik antolatzen dut trafikoa. **(SEMAFOROA)**
- Zotz baten antzekoa tamainan. Oraindik sua egiteko sasoian. Kutxa txikian egiten dut lo. Ea asmatzen duzun mozolo! **(POSPOLOA)**
- Kontuz erabiltzen banauzu, nik lurrina bota eta arropak lisatu. **(LISABURDINA edo PLANTXA)**
- Gurean gaixoari botikak eman. Ezetz nire izenik esan! **(FARMAZIA)**
Ahoa zorrotza eta begiak hutsik. Mozteko ez bada, beti nago geldirik. **(GURAIZEAK)**